



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

578. zkia.

XIV. urtea

2006ko ekainaren 30a

**Uda sasoian,
udalekuetara!**

Km.0 eta aukerako autoen erakusketa handiena ELGOIBARREN

Europar Bermearekin



180 MARKA GUZTIETAKO 180 AUTO ERAKUSKETAN
4x4, industrialak, coupeak, monobolumenak, berlinak, familiarrak...



Nabigazailea **OPARI**

AUTO GARBIKETA
DOAN

UZTAILAK 1
Goizean 10:00 - 14:00
Arratsaldean 16:00 19:00

UZTAILAK 2
Goizean 10:00 - 14:00

km.0 **Giauto**
943748598

Aukerako Autoak

Giauto Tel. 943 74 85 98 Faxa: 943 74 85 99 · Pol. Olaso, 25 ELGOIBAR · vomendaro@giauto.es

uztaila ostiraleko

Uztailak 7



PAINTBALL (Debaventura)
Irten: 10:00etan
Itzuli: 18:00etan
Prezioa: 20 €

Uztailak 14



KANOA eta SURFA (Urdaibai)
Irten: 08:00etan
Itzuli: 20:30ean
Prezioa: 50 €

Uztailak 21



**BEIGORRI ABENTURA
PARKEA** (Lekunberri)
Irten: 10:00etan
Itzuli: 18:00etan
Prezioa: 20 €

3 ekintzetan izena emanez gero,
50€ besterik ez dira ordaindu behar!

IZEN-EMATEA

- Diru-sarrera kontu honetan egin behar da: KUTXA 2101 0036 65 0124148420
- KUTXAko ordainagiria, izen-emate orriarekin batera, Elgoibarko Izarrara ekarri behar da Elgoibarko Izarra. Ubitarte plaza 4.
- Matrikula ordaindu ondoren atzera egiten duenari, ordaindutakoaren %80a buclatutako zaio, arrazoitutako kasuetan.
- Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Nagore) eta nagore@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikoan.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





AINHOA MENDIBIL

Ze zoramen Amaia!

Batxilerra bukatu, selektibitatea atzera laga, danborra ahal beste jo, eta ti-tau, hegazkinean gora. Gora, gora, gora, eta behera. Eta Mallorca.

18 urtean elkarrekin egon garen 28 gazte, han.

Aste bete pasa dugu elkarrekin, jatorduetan, batera esan ditugu demasekoak sukaldariei buruz (makarroi eta patatekin bakarrik ezin bizi), denok erabili dugu euskara harro harro espainol, aleman edo eta ingelesez aurrean.

Kaka egiteko hasierako arazoak ere batera gainditu ditugula esan daiteke, batzuek beste batzuek baino lehenago... ijijiji... eta orokorrean, barre egin dugu elkarrekin, negar noizean behin, parranda politak bota ditugu eta ondorengo eguerdialdeko lokaliek ere izan dute berea (esnatu eta aurpegia margotuta duzula ikusteak badu bere grazia).

Eta horrela zazpi egun eman ostean, zazpi egunean zehar irla hura eta bertakoa besterik ez dela existitzen sinestera iritsi naizenean, itzuli egin behar!

Berriz ere, hemen, hau egin behar, bestea ezin ahaztu, hari deitu, honekin egon... eta bitartean Mallorcako 28 horiek zatika zatika...artxipelago bihurtuz...

Pena bat da, baina plazer bat izan da.

Ez al da horrela gertatzen Amaia?

ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTXATEGI

Igual igual, Ainhoa!!

Holandako "happy hour"ak ezin ahaztuta nabil oraindik, gelako lur bustia, azpiko pisuaren teilatu zen balkoi inprobisatu hura...

Baina Mallorca han gelditu den bezala, Holanda ere ez zen nirekin etorri, soilik oraitzapenak lapurtzen utzi zidan.

Ba bai, plazer bat izan zen eta bai, pena bat da. Pena bat da kalimotxo eskuan horrenbeste promesa egin zenituztenak kalean ikusi, eta zer esan jakin gabe ibiltzea.

Uste ez baduzu ere gertatuko zaizu, guztioi gertatu zaigu-eta.

Irlak artxipelago bihurtzen dira askotan, lagunak ezagun eta piñak zatitzeko ez da laban bat behar izaten, denbora nahikoa izaten da... baina horrelakoxea omen da bizitza.

Baina ez triste jarri!!! Leioa Mallorca bezalakoa omen da!!! (eguzkiaren partez elurra eta hotza, baina osterantzean...) Medikuntzako fakultateetik urrun festa giroa amasten omen da!!! (ez haserretu nirekin, hori da nire pisuan komentatzen dena. shshsh... inbidia... shshs)

Han zozo asko omen dago!! Eta zuk zutarren artean oso ondo pasatuko duzu Ainhoa!! Zu lasai!!

Hala ere, ez inoiz ahaztu gure aitatzok esandakoa: "Benetako lagunak esku batekin bakarrik kontatzen dira".

«Kaka egiteko arazoak ere batera gainditu ditugu»

AINHOA

«Benetako lagunak esku batekin bakarrik kontatzen dira»

AMAIA



EZIN ADIERAZI DU EDONORK, HARROTASUNEZ, ADISKIDE BAT DAUKALA



Antoine de Saint Exupery

EAri erantzuna

Duela 3 urte ospatu ziren Udal Hauteskundeetan nire botoa Einbiouri eman nion, 1.000 horietako bat naiz. Eta benetan samindurik irakurri dut Eusko Alkartasunak idatzitako eskutitza. Nik ez daukat EAren inongo babesik, itxura denez. Madrilen PPK eta PSOEk adostu zuten Alderdi Legearen bidez nik aukeratutako bi ordezkariak ezin izan dute Plenoetan iritzirik eman, ez dituzte kontuan hartu 3 urte hauetan egon diren arazoetaz erabakitzerakoan eta hori guztia, herriko bigarren indar politikoa izanik. 3 urte luze hauetan Elgoibarko EA isilik egon da, ez du ezer esan gai honetaz. Alderdi Legearekin ados al dago? Ezetz diote. Zer egin dute orduan, lege horren aurka? Guk ez dugu ezer ikusi, ez baldin bada gure bi ordezkarien eskubideak zapaltzen, batean bai eta hurrengoan ere bai.

Bortxazko eta mehatxuzko jarrerak aipatzen ditu EAk. Ez dut uste D'Ont legearen arabera Einbiouroko zinegotzietan dagozkien aulkia okupatu dituztenen izenak eta argazkiak kaleratzea bortxazko eta mehatxuzko jarrerak direnik. Edozelan ere, ulertzen dut kanpaina hau ez dela beraien gustukoa izango eta gaizki pasatzen ariko direla. Baina, nola definitu daiteke 1.000 elgoibartarrek egunero jasan behar dugun egoera? Zergak ordaintzen ditugu, era askotakoak, Udalak, Aldundiak, Estatuak eskatuta. Baina gure ordezkariak aukeratzeko, biltzeko eta adierazteko eskubidea ukatzen zaigu. Zer da hau? Bortxa, mehatxua, inpos-

keta, faxismoa... Honetaz ere, nahiko nuke EAren iritzia entzun. Ez digu balio ideia eta proiektu guztien alde daudela esateak. Noiztik aurrera? 2007tik aurrera? Edo gehiago itxaron behar dugu, 2008ra? Edo beranduago?

3 urte eta piku hauetan Gobernu batzordean dagoen alderdi bat, berea ez den aulkia egunero okupatzen duen alderdiak erantzukizunik ez onartu eta ardura guztia ilegalizatutako gainera botatzeak, neurri guztiak gaintzen dituen jarrera zinikoa erakusten du. Erantzukizunak denok ditugu eta EAK baditu bereak. Elkar ulertu nahi badugu, horiek onartzen hasi beharko dugula uste dut.

Elkarlana aipatzen du EAk. Honekin bat nator. Elkarlan handia eskatzen digu gaurko egoerak, baldin eta Euskal Herria beste estadio batera eraman nahi badugu: iritzi eta proiektu guztiak gauzatzeko eskubidea izango den estadio batera, hain zuzen. Egitasmo honen legitimitatea euskal herritarren eskubidetik datorkigu: nazio bat gara eta eskubideak ditugu. Espainiako legedia ez da inor euskaldunon borondatearen ginetik jartzeko. Elgoibarren duela 3 urte pasa berdin pentsatzen genuen. Horregatik 1.000 elgoibartarrek eman genion gure botoa Einbiouri, eta 1.000 esloibartarren boron-

datea Espainiako Alderdi Legearen ginetik dagoela uste dut. Bukatzeko, nahiz eta berandu izan, elgoibartar guztion interes eta eskubideak defendatzeko eskatu nahi diot EAri, Einbiouri botoa eman genion 1.000 horien ere bai.

PELLO MENDIZABAL

Mintxeta Atletismo Taldeari esker onez

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, eskerrak eman nahi dizkio publikoki Mintxeta Atletismo Taldeari, Mintxetako igerilekuen ondoko gunea egokitzeko egin duen lanarengatik.

Azken aste hauetan zehar, Mintxeta Atletismo Taldeko kideak, Antón Arrilaga eta Gerardo de Pedro buru zituztela, Mintxetako igerilekuko solariumaren ondoan dagoen lursaila garbitzen eta prestatzen aritu dira, datorren urtean egingo den Juan Muguerza Kroserako zirkuitua prestatzeko asmotan. Eta Patxi Arrilagaren hondeamakinaren laguntzarekin egin duten lan bikain horri esker, igerilekuetako erabiltzaileek eguzkia hartzeko toki handiagoa izango dute.

RAMÓN MÚGICA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.




barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBUZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe KE, Uruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.530 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

- **Ikastolako aldapan kotxeak gaizki aparkatuta egoten dira:** "Ikastolako aldapan, bi aldeetan aparkatzen du jendeak kotxea, espaloi gainean lagatzen dute autoa, eta ez dago bertatik pasatzerik. Erosketak egiteko karroarekin edo umearen aukiarekin pasatzea ezinezkoa da. Aurreko batean erori egin nintzen eta ez naiz bakarra. Zer bait egin beharra dago."



- **Kiroldegiko dutxak egoera txarrean daude:** "Obretan aritu dira Olaizaga kiroldegiko dutxetan, baina egoera ez da asko hobetu. Dutexako urak lehen baino presio gutxiago dauka eta ileko jaboia kentzea mordera kostatzen da. Nola daiteke obrak egin ostean lehen baino okerrago uztea? Gainera, denbora dezente pasatu da obrak amaitu zituztenetik, eta dutxetan ez dute jarri oraindik toailak zintzilikatzeke pertxarrik. Akaso ez dute jartzeko asmorik izango, baina oso ondo etortzen zen".

- **Urasandiko eskailera mekanikoak askotan egoten dira geldirik:** "Urasandi auzoko goiko aldean jarri dituzten eskailera mekanikoak oso gutxitan egoten dira erabiltzeko moduan, gehienetan geldirik egoten dira. Ez dakigu zein den arazoa, izorrotuta egoten diren edo umeek gelditzen dituzten, baina norbaitek zaindu beharko luke. Jende nagusiarentzat beharrezkoak dira eskailera mekanikoak, eta hainbeste ordaindu ondoren, ondo funtzionatzea ezinbestekoa da, bestela, alperrik daude!".

TXALOAK

- **Txalo bero bat Altzolako San Joan jaietako antolatzaileei:** "Auzo txikia gara, baina San Joan festak ederrak izan dira aurtengoan ere. San Joan zuhaitza jartzea eta erreka su piztea ikusgarriak izan dira, emozionatzeko modukoak. Antolatzaileek lan handia egin dute eta txalo bero bat merezi dute, eta bide batez, datozen urteetan ere bide beretik jarraitzeko eskatuko nieke. Bestalde, gure auzoko jaietara gerturatu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, gure auzo txikiari merezi duen bizitasuna eskaini dietelako".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Saileko zuzendaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





Luma

Ekaina: egunak luzatzen eta

Zeinen ondo pasatu dogun ekainian Elgoibarren! Lehenengo barikuan, *Ibaetako Manifestuaren* sinatzaileen eskutik ekitaldi polita egon zan Maalako parkian. Hantxe, *K-104*, *Arima Beltza*, *Haritz Dantzari Taldea*, *Napoka Iria*, Elgoibarko presoen dei eta eskutitzak, antzerkitxo...ikusteko aukeria izan gendun

Hurrengo asteburuan *Trinidad* ospatu genitun. Barikuan, bertso poteo eta rock kontzertuekin majo gozatu gendun. Zapatuan berriz, *Beste Bat* berbena taldiak Maalako parkera agertu ginan jendetzia dantzan jarri zaban. Egia esan lepo bete gendun haur, gazte eta pentsaera ezberdindun helduek Elgoibarko *Gune Askea*.

Aurreko astian, San Juanak izan zian, eta *Lerun Txiki Etxe Okupatuan* antzinako ohiturak dion moduan, 7 iturritatik edateko bildu zan jendia bestiak beste.

Hauk ekitaldixok, burutu ostian, ez diaz prentsan agertu, baina mundialak izan ziralako, zorionak antolatatu zittuztenei eta bertaratu zineten herritarroi.

Amaia Urzelai

[ZORTZIKO TXIKIAN]



CARMEN DELIA RODRIGUEZ

HAIR'S
ILEAPAINDEGIKO

Udarako ile orrazkera edo kolore bat?

Ilea motz-motz, laranja edo kobre kolorezko metxa askorekin.

Gogoko al duzu bezeroak gomendatzea?

Bai, gomendioak eta aholkuak ematea gogoko dut, baina bezeroak du azken hitza.

Munduko futbol txapelketan orrazkera bitxi asko ikusten ari gara. Atentzioa deitu dizun norbait?

Cañizaresen ile horia.

Zein futbolari egingo zenioke orrazkera moderno bat?

Beckham-i, denetarik egiteko aukera ematen du.

Gaztetako argazkiak ikusten dituzunean zure orrazkeretaz damutzen al zara?

Dudarik gabe. Askotan galdetzen diot nire buruari zertan ari ote nintzen pentsatzen.

Zer ez zenuke egingo sekula ilean?

Zerora rapatu. Gainerakoan gogoko ditut itxura aldaketak.

Nork merezi du denuntzia bat orrazkeragatik?

Maria Teresa Camposek. Ez diote mesederik egiten.

Psikologo lanak egitea ere tokatzen zaizue askotan.

Ileapaintzaile, psikologo, lagun... denetarik egitea tokatzen zaigu. Terapia da ileapaindegira etortzea batzuentzat.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 065

[AKORDATZEN NAIZ]




MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Autobusa»

Lehenguan egon giñan akordatzen kotxerik gabe zelan moldatzen giñan. Urkiolara edo Arratera sarritan juten giñan gurasuekin. Urkiolara juteko, lehenengo Durangora trenian juten giñan, eta gero autobusa hartzen gendun.



Bueltan berdin egitten gendun. Urkiolan lau ordu pasatzeko egun guztia firin-farin pasatzen gendun. Baiña orduan horixe zan normala, eta halaxe gozatzen gendun. Zu bakarrik baldin bazabiz, modu horretan gaizki pasatzen dozu; baiña orduan danok ibiltzen giñan igual, eta erretz eruatzen zan.

Arratera juteko, normalian oiñez juten giñan, eta Eibarera eskolara juten giñanian bueltia ere askotan egitten gendun oiñez. Karreteratik lasai-lasai etortzen giñan. Ez zagan kotxerik, igual kamioiren bat pasatzen zan, baiña ez zagan peligrorik. Jun, trenian juten giñan, bestela eskolara berandu ailegatzen giñan eta. Sei kilometro ez da ezer! Gaur egunian jubilau askok egitten dabe sei kilometro egunero pasiaran.

[GURE BERBAK]

Denborazko egitura batzuk (2)

Denporia adierazteko beste egitura aipagarri batzuk batuko doguz gaurkuan: JUAN DANEXO X URTIAN, -ENETIK(AN), -TU ONDORENIAN, -TU ORDUKO, -TZERAKO, -ENERAKO, -ELA. Hona adibide txorta bat.

Harek kendu, eta gero errapiak garbittu ganaveri, eta oiñ, azken aldixan, jun daneko hogei urtian edo, makiñiak jeizten ditugu. Pertsonia jaixotzen danetikan gastatzen hasitta dago.

Julian hasi zuan gerra hori, eta geratu giñuaz danok kalia. Eta gero Don Felixekin hasi nitzuan ni, Eibar hartu ondorenian, Bilbo hartu ondorenian ere uste juat. Kotxian baldin banijua, tak! Abantau orduko emango diot nik radixuari.

Radixua ipintzen juat, eta jakitzen jaituat mundu guztiko kontuak ohetik jaikitzerako. Ni jaiki nitzanerako ezkutauta zan etxetikan, da nun danik ere ez.

Sansongan jaixo giñan gu, ni behintzat. Da gero, ba handikan kalera bajau giñan, nik sei bat urte nakazela.

Jesus Mari Makazaga



Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ. ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!** IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



GABILONDO

AGENTZIA INMOBILIARIA

SAN ROKE

Bulegoak jartzeko azkeneko lokalak salgai. Toki onean. 11268,98 eurotik hasita.

Errosario, 21 behea -Tel: 943 74 44 67

615793406

MENDARO

Eraikitzailearen prezio zuzena, bitartekorik gabe.

3 logela, saloi-jangela, 2 komun, sukalde eta balkoia. 90m²-ko azalera erabilgarria.

Material bikainez eraikia. Azkeneko etxebizitzak.

41.615.000 pta



IBAN GARATE

«Telebistak erre egiten du eta jubilatuta arte kamara aurrean egotea ezinezkoa da»



Azkoitiar naturala bezala definitu du Iban Garatek bere burua, baina azpeitiarrekin oso ondo konpontzen dela aitortu digu. 24 urteko gazte hau Ikusentzunezko Komunikazioa ikasten ari da Iruñean. Aktore eta telebistako aurkezle moduan ezagutzen dugu: 15 urte zituela hasi zen Goenkale telesailean lanean eta azken lau urteak umeen saioak aurkezten ikusi dugu. Gaurkoan, Idazmakinak literatura lehiaketako sariak banatzera etorri dela aprobetxatuz, Iban Garate gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu.

• **Lotsatia zarela entzun dizut behin baino gehiagotan. Aktore, aurkezle eta lotsatia izatea bat al datoz?**

Kontraesana dela ematen du, baina hala da. Niri ez zait gustatzen jendartean ibiltzea, giro intimoa nahiago dut. Telebistak transformatu egiten gaitu, lanaren arabera, toki bakoitzean modu batean edo bestean egon behar izaten dut, baina nire burua lotsatitzat daukat eta ezagutzen nauenak badaki lotsatia naizela.

• **Azkoitiarra izanik, zer moduz moldatzen zara azpeitiarrekin?**

Ez dago arazorik. Azpeitiarrekin dugun pikea sana da, oso ondo konpontzen naiz beraiekin. Aspaldiko pike zatar hura, noizbait izan bada, bukatuta dago.

• **Nola iritsi zen Iban Garate Goenkalera?**

Ikastolan geundela, antzerki taldean nenbilen eta 13 urterekin kasting bat egitera joan nintzen ETBra. Aktore gazteak behar omen zituztela eta hantxe joan ginen. Gure curriculuma entregatu, orri txuri bat, eta pare bat

argazki. Bi urte pasa arte ez nuen ezer jakin. Pausokatik deitu zidaten, 17 urteko gazte bat behar zutela, erretzailea, altua... ez zeukan nirekin zerikusirik, baina hartu egin ninduten. Orduan arazoak! Egin edo ez egin! Ni beti ikasle fina izan naiz eta ez nuen nire notak jaisterik nahi, bastante tipo atipikoa nintzela uste dut.

• **Nolakoak dira kastingak?**

Orain zerotik hasteko kasting baterako deituko banindute, ez nintzateke joango. Ez zaizkit batere gustatzen, oso desagradableak dira. Probak egiten jartzen zaituzte eta badirudi zure aurrean dagoenak dena dakiela eta zuk ezer ere ez. Gaizki pasatzen dut.

• **Goenkale tranpolina izan zen zuretzat?**

Bai, baina azkenerako utzi egin nuen. Ikasketak bukatu behar nituela erabaki nuen. Ekonomia ikasten hasi nintzen, eta berriro deitu zidaten telebistatik: Betizu aurkezteko kasting bat zegoela. Gogo gutxirekin joan nintzen kastingera eta hartu egin ninduten, eta ezin ezetzik esan!



«Ezagutzen
nautenek
badakite
lotsatia
naizela»

- **Nola gainditzen dira zuzeneko nerbioak?**

Hori ez dago esplikaterik! Izerdi hotza ateratzen zaizu eta, sekulako tentsioa jasan behar da. Lehenengo egunean gertatu zitzaidana, ez zaio inori pasatu ETBko historian: lehiaketa bat zegoen, panel baten atzean pertsonaia bat ezkutatzen zen eta umeek galderak asmatzen bazituzten, atzeko aldekoa agertzen zen, puzzle osoa azaldu arte. Ba, inork ez zuen deitzen. Nik telefonoa joka entzuten nuen, baina inork ez zuen erantzuten. Kontua da ingeniariaren batek konexioa gaizki egin zuela. Oso gaizki pasatu nuen. Azkenean neuk egin nuen jolas umeei jolasaren mekanismoa azaltzeko. Iñaki Perurena zen pertsonaia, ez dut erraz ahaztuko egun hura!

- **Pantaila txikitik handira salto egin zenuen Aupa Etxebesterekin. Nolako esperientzia izan da?**

Zinean teknikako elementuen menpe dago aktorea eta telebistan gehiago agintzen du. Demaseko esperientzia izan da, lagun artean egindakoa izan da eta oso koadrila ona sortu dugu.

- **Etxebesteri gertatutakoa zuri pasa balitzazu, zer egingo zenuke?**

Etxean behintzat ez nintzateke geldituko! Batzuk diote historia hau benetan pasatakoa dela, baina ezin dut sinistu. Azpeitian gertatu dela? Ez nintzateke harrituko, horiek zezenetara sonbreroarekin joaten dira-eta!

- **Nola daramazu fama?**

Ni ez naiz famatua, ezaguna naiz eta gainera leku batzutan bakarrik. Ez daukat arazo handirik, baina ez naiz juergara asko irtetzen. 15 urterekin Pasaiaira joan nintzen Kilometrotara eta oso gaizki pasatu nuen. Jendea autografoak eskatzen, denak zarataka... nire lagunak ere harrিতa zeuden. Lanetik atera eta oraindik lanean egon behar hori kenduko nuke nire lanbidetik. Aldi berean, inork ez banindu ezagutuko ere, seinale txarra! Oreka bilatzea oso zaila da.

- **Zu autografoak eskatzekoa izan al zara?**

Ez, baina behin burua galdu nuen Xabi Alonsorekin. Ez zait inoiz gertatu. Liverpoolera joan aurretik berarekin argazki bat atera behar nuela sartu zitzaidan buruan eta Miramonera etorri zen baten atera nuen. Barre egiten zuen!

- **Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**

Hori ez dago esaterik. Telebistak erre egiten du, eta jubilatuta arte kamara aurrean egotea ezinezkoa da. Ahal banu egongo nintzateke, kamara aurrean eroso sentiitzen naiz-eta. Kamara atzean lan egiteko ere prest egon behar da, eta horretan ari naiz. Ekonomia ikasi nuen eta akaso, produkzio aldetik joko dut, gustatzen zait gauzak antolatzea

[PROTAGONISTA]



Migel Lariz

Migel Larizek hartuko du Jose Luis Insaustiren erreleboa C.D. Elgoibarko presidente karguan. Ekonomikoki, ez da urte ona izan 2006a klubarentzat, izan ere, 35.378 euroko defizitarekin itxi baitu denboraldia. Diru sarrerak 133.014 euro izan dira eta gastuak 168.392 euro. 2006ko ekaineko ondarea 115.669 eurokoa izan da.

Bazkide kopurua ere, azken urteotan beheraka doa; 700 bazkide izatetik, 400 ingurura jaitsi da. Migel Lariz eta bere zuzendaritza taldearen helburua gastuak murriztea da, C.D. Elgoibarren egoera ekonomikoa hobetzeko.

[NOTIZIA]

Ideologia desberdinetako emakumeek Ahotsak taldearekin bat egin dute

Elgoibarko emakume talde batek Ba-kearen Aldeko Emakumeen Ahotsak aurkeztutako bake prozesuarekin bat egin dute. EAJ, EA, Batasuna eta LABeko zenbait emakume bildu eta martitzenean egin zuten aurkezpena. Beraien hitzetan: "Ideologia, tradizio eta sentimendu ezberdinak ditugun emakumeak gara; banatzen gaituena alde batera utzi eta batzen gaituenetik abiatu gara, emakumeek ba-kearen aldeko eragile aktibo izan behar dugulako".

Herri mugimendua

Emakume talde honek ez du plataforma bat sortu nahi, "herri mugimendu baten hasiera bilakatu nahi dugu aurkezpen hau". Euren nahia, herri mailako eragile



ezberdinetako emakumeek adierazpen honekin bat egitea da. Horretarako herri mailako sinadura bilketa kanpaina bat jarriko dute martxan adierazpen honi atxekimendua emateko, eta uztailaren 6an gaueko 21:00etan ekitaldia egingo dute Herriko Antzokian.

[ZENBAKIA]

220.509

Udalak 220.509 euro erabiliko ditu heritarren arretarako bulegoa egokitzeko. Bulegoan, besteak beste, udal informazioa,

herriko informazioa, berehalako ebazpenen bideratzea, altak, bajak, errolda aldaketak, isunen kobratzea egingo dira.

[ARGAZKIA]



Azken egunotan atzerriko doinu artean lanean jardun du BARRENEko lantaldeak. Kultur Etxeko sotoa Mexiko eta Argentinatik etorritako musikarien entsegu lekua bihurtu da. Argazkian ikusten den taldeak "Esencia argentina" du izena. 13 lagunek osatzen dute taldea, eta argentinarraren folklorea eta tangoak jotzen dituzte. Migel Gorostiza eibartarrek zuzentzen duen "Latin Colours" enpresak ekarri ditu eta uda honetan, kontzertu desberdinak eskainiko dituzte Euskal Herrian eta Estatuan zehar. Estreinaldia gaur gauetan izango da Eibarren.

Amiantoarekin zerikusia duten lanak azpikontratatu dituzte Udalak



Elgoibarko udaleko hirigintza eta ingurumen batzordeko presidenteak, Migel Anjel Mujikak, amiantoaren inguruan CCOOekin egindako adierazpenak ezeztatu eta azaldutako salaketak gezurtatu ditu eta salaketa faltsuak egin baino lehen udaletxean informatu dadila gomendatzen dio, Javier Uzkudun sindikatuako delegatuari. Amiantoaren manipulazioa jasotzen dituen lan guztiak eta langileen edota obra inguruan ibili diren jubilatuen jarraipena egiteko enpresa espezializatu bat azpikontratatu duela baieztatzen du Migel Anjel Mujikak. Gai-

nera, amiantoarekin kontakturen bat izateko aukera zuten langile eta jubilatuen zerrenda bat egin eta osasun zaintza zehatza burutzen ari direla azpimarratu du. Azkenik, Javier Uzkudunek zuntz-zementudun hodiekin lan egitearen ondorioz, hainbat udal langile arriskuan daudela adierazi zuen. Migel Anjel Mujikak ondorengo erantzun dio: "pasa den urteko urtarilaren 1etik, Elgoibarko Udalak uraren kudeaketa Gipuzkoako Uren Partzuergoari utzi zion, beraz, Udaleko langileek ez dute sare hauen inolako mantentze lanik burutzen".

Udalak Arau Subsidiarioak aldatzeko duen politika salatu du Einbiouk

Lerun Txiki-Morterika ingurunean industriagunea egin ahal izateko Arau Subsidiarioak aldatzea onartu du Udalak. Einbiou Herri Plataformak erabaki hori salatu egin du eta beharrezko alegazioak udaletxean aurkeztuko ditu. Einbiouk bi ideia azpimarratzen ditu: Batetik, Elgoibarko Arau Subsidiarioak zaharkituak daudela (1992koak dira) eta berri egin behar direla, ezinbestean, eta bestalde, berrikuntza hau egin aurretik ez dela aldatzeko puntual gehiago egin behar; dagoeneko 12 edo 13 egin dira. Einbiou-

rentzat aldatzeko puntualak egiteko politika hori ez da zuzena: "aldaketa puntualak salbuespenak izaten dira, baina hemen, lege bihurtu dira, eta hori 3 arrazoi-gatik izan daiteke: arduragabekeria, Jauntxokeria, edo tranpa egiten ari direlako. Guk uste dugu, kasu honetan, hirurak bildu direla". Einbioukoen esanetan, politika honekin Udalak nahi duena egin dezake: "Udalari errazagoa zaio aldatzea puntualak egitea, nahi duenean, nahi duena eta nahi duen erara alda daitezake".

[MOTZ-MOTZIAN]

IMHko bi ikaslek Txinan egingo dituzte lan praktikak

Unai García eta Unai Oses, Ingeniaritzako 9. promozioiko ikasleek, Txinako Tianjineko Chinese-Spanish Institutetan egingo dituzte lan praktikak abuztutik azarora bitartean. 2006ra arte ikasleek herrialde ezberdinetan egin dituzte praktikak, baina batez ere, Europan eta Estatu Batuetan. Unai García eta Unai Oses ikasleek 12 asteko lan praktikak egingo dituzte Tianjineko Chinese-Spanish Institutetan.



EGA prestatzeko ikastaroa


Aurtengo udarako ere, EGA azterketa prestatzeko ikastaroa antolatuko du AEK euskaltegiak. Eskolak uztailaren eta irailaren izango dira, goizez. Udalak diru laguntzak emango ditu, beraz, langabetuek, ikasleek eta 12 urtetik beherako seme-alabak dituztenek matrikularen erdia ordainduko dute. Informazio gehiago AEK euskaltegian (943 741332).

Helduen Eskolarako matrikula

Helduen Alfabetatze eskolan izena emateko interesa dutenek irailaren 1etik 13ra bitartean egin dezakete, eskolan bertan, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean. Besteak beste, alfabetizazioa, atzeritarrentzako ikastaroak, kultura orokorra, eskola graduatua lortzeko klaseak eta hizkuntzak emango dira. Informazio gehiago 943 740880

▶ **ELENA PEREZ**
DOMINIKAR ERREPUBLICA [ERTAMERIKA]

«Esnatzen garenetik oheratu arte dominikarron bizitzako parte da musika»



DOMINIKAR ERREPUBLICA-KO DA ELENA PEREZ RAMIREZ. KARIBEKO UHARTE HONEN EKIALDEAN, SAN PEDRO DE MACORISEN, BIZI IZAN DA ORAINSU ARTE 28 URTEKO NESKA GAZTE ETA ALAI HAU. LA ROMANA, HIGÜEY, PUNTA CANA, BOCA CHICA, PUERTO PLATA, ETA ANTZERAKO TURISMO GUNE EZAGUNEZ INGURATUTA, ALEGIA. IAZKO ABENDUTIK HONA, ORDEA, ELGOIBARREN BIZI DA.

▶ **Nolatan Elgoibarren?**

Txetxu, nire bikoteak ekarri ninduen. Trenbideko geltokiko burua da bera. Nire herrialdean elkar ezagutu eta Euskal Herrira etorri nahi al nuen galde egin zidan. Hau nolakoa zen ezagutzeko gogoia neukan eta hementxe nago. Hala ere, tramite eta paper ugari bete behar izan ditut honaino iristeko. Enbaxadan ez digute batere erraz jartzen gure herrialdetik ateratzea.

▶ **Iritsi eta jaso zenuen lehen inpresioa?**

Iazko abenduan iritsi nintzen, demaseko hotza egiten zuela. Hemen ezagutu nuen estrainekoz elurra. Dena zen berria niretzat, hegazkinez ere sekula ibili gabea nintzen, baina Txetxuren familiak; amak eta bi alabek, nola hartuko ninduten zen nire kezka nagusia, eta baita berea ere. Oso ondo hartu naute eta oraingoz ezin naiz kexatu.


«Hemen ezagutu nuen estrainekoz elurra»

▶ **Asko kostako da Dominikar Errepublikako moduko "paradisu" bat lagatzea, ezta?**

Bai, guztia laga dut han. Nire familia; ama, sei anai-arreba eta gainontzeko sendiaren hutsunea nabari dut. Eta baita 'Bull', nire txakurrarena ere. Jendea harritu egiten da txakurra faltan botatzen dudala esaten diedan, baina niretzat ez da edozein txakur. Jaio zenetik, goizero, nire logelako pertsiana azpira joaten zen eta buru gainetik eskua pasatzen nion arte ez zuen alde egiten. Oso txakur fidela da, bizkarzain aparta, eta pertsona on eta txarrak antzemateko seigarren zentzu bat duena.

▶ **Zer ezberdintasun aurkitu dituzu?**

Oso ezberdina da Karibearen edo Europaren bizi. Hango jendea irekiagoa da, gure arteko agurrak ere luzeak.



goak dira. Hemengo eguzkiak gutxiago erretzen duen irudipena ere badaukat! Bestalde, esnatzen garenetik oheratu arte dominikarron bizitzako parte da musika, gure bizitzetako soinu banda balitz moduan. Merengea, bachata, e.a dantza egitea izugarri gogoko dut, baina hemengo musikarekin ezin da. Bestalde, Karibeko klimari eskerrak, janaria eta musikaren inguruan kalean ibiltzea ohikoagoa da han. Gastronomía ere oso ezberdina da. Hemen ondo jaten denik ezin da ukatu, baina aukeran gehiegitxo. Txuletoi batzuren tamairarekin harrিতa geratu naiz. Denetarik probatu dudán arren; bainak, esparragoak, eta garbantzoekin gehiago kostatu zait. Sagardotegi batean ere izan naiz eta gustatu zitzaidan. Gure gastronomian arroz plater ia guztien osagaia da.

► **Dominikar Errepublika turismo lekua izan arren, hoteletaz aparte turistek ezer gutxi ikusten duten irudipena daukat...**

Politena erakutsi eta gainontzekoa ezkutatzen diete, noski. Hoteletik atera eta irila libreki ezagutzeko gomendatuko nieke hara doazenei. Pobrezia handia dagoen gunek, egon, badauden arren, Dominikar Errepublika guztia iruditzen zait erakusteko modukoa. Dominikarren gehien-goia azukre kainaberaren ustiakuntzatik bizi ziren garaiak aspaldi joan ziren eta bizimodua nonbaiten aurkitu behar izan zuten herrikide askok. Hau da Ameriketako Estatu Batuetan eta Puerto Ricon dominikar kolonia oso handiak egotearen arrazoa. Inmigrazio ilegalaren bitartez iritsi ziren gutariko asko eta asko herrialde hauetara.

► **Erligio-fede handia ei duzu?**

Bai, katolikoa eta praktikantea naiz. Hemen erlijio bera izan arren, mezak ulertzeko modu ezberdina duzue. Han denok abesten dugu, eta abestia eta unearen arabera, sentitzen duzuna; poza, emozioa... irudikatzen txalok jo eta asko mugitzen gara.

► **Lana topatzea nahi duzu, ezta?**

Denbora larregi daukat libre eta hori ere ez da ona, zahartu egiten gaitu: berandu jaikitzen naiz, telebista eta ordenagailu aurrean denbora gehiegi... Lan egiteko hezi ninduten gurasoek eta gogoko dut lan egitea. Etxean laguntzeko lantxoren bat egitea gustatuko litzaidake. Lan askotan aritu nintzen nire herrialdean: kamarera, idazkari, kutxazain, nire izebaren negozioan laguntzen, e.a. Hemen umeak edo pertsona edade-tuak zainduz lan egitea gustatuko litzaidake.

DOMINIKAR ERREPUBLIKA

- **Hiriburua:** Santo Domingo
- **Azalera:** 48.442 km².
- **Biztanleria:** 8.500.000
- **Alfabetazioa:** %82a
- **Gobernua:** Errepublika presidentzialista



Bihar, uztailak 1, jarriko da martxan puntu bidezko gidabaimena.

Puntu bidezko gidabaimenarekin, aldatu egingo al duzu gidatzeko modua?

DAVID SANCHEZ

Garraiolaria

51 urte



“Beharko aldatu! Lanerako behar dut gidabaimena eta ezin dut galdu. Azkar gidatzen dut normalean, eta motelago ibili beharko dut derri gorrez.”

ANTONIO PALOMO

Karrozeroa

49 urte



“Ez. Nahiko ondo gidatzen dudala uste dut eta puntu bidezko gidabaimenak ez nau kezkatzen. Gauza batzutarako ondo etorriko da, baina gehiegizko da.”

MARCELIANO DIEZ

Elektrikaria

60 urte



“Ez, berdin jarraituko dut. Inposaketa bortitza iruditzen zait sistema hau, batez ere, gidabaimena lanerako behar duteneztat. Dirua biltzeko sistema da.”

ASIER FEIJOO

Rebabadorea

33 urte



“Ez, gidatzeko modua aldatzea zaila da, eta gainera arauak errespetatzen ditut normalean. Sistema honekin gauzak hobetu egingo direla uste dut.”

[BAI ala EZ?]

Uda datorrela-eta, egiten al duzu pisua galtzeko dietarik?

BAI %14

“Bai. Urte osoan egitea komeni zait, baina neguan arropa azpian ezkutatzen garenez, ez dut ezer egiten. Azken orduan korrrika eta presaka kilo batzuk kentzen saiatzen naiz.”

EZ %86

“Saiatzen naiz, baina bizioa barruregi sartuta dakat. Ba al dago jatea baino plazer hoberik? Gainera, azken orduko dietak ez du ezertarako balio.”

Datorren asterako....

EHUn lizentziatutako 10 ikasletik 8k euren arloan bilatzen dute lana.

Zure ikasketekin lotura duen lanbidea al daukazu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[GOMENDIOA]

Beroari aurre egiteko aholkuak

Joan zen astean sartu ginen udan. Ordutik badirudi, eguraldia petraldu egin zaigula. Baina duela pare bat aste sekulako beroa izan genuen, eta aurrera begira ere, ziur etorriko direla bero jasanezinak. Temperatura altuei aurre egiteko hainbat aholku kaleratu ditu Eusko Jaurlaritzak eta guk hemen laburbildu ditugu.

1. Likido gehiago edan:

- Ura batez ere.
- Edateko ez da egarria sentitu behar.
- Kafeinadun, alkoholadun edo azukre asko daukaten edariak sahiestu.
- Medikuek edariak murriztu badizkizu, berarekin kontsultatu.

2. Janariak:

- Janari arinak prestatu: entsaladak, fruktak, barazkiak, gazpatxoak...

3. Etxean:

- Eguzkiak jotzen dituen leihoak itxi.
- Aprobetxatu berorik gutxien egiten duen momentua etxea aireztatzeko.

4. Arropa eta oinetako egokia erabili:

- Arropa arina eta kolore argikoa.
- Oinetako eroso eta freskoak erabili.

5. Freskatu zaitez:

- Bero handia sentitzen baduzu dutxa edo bainu hotza hartu.

- 35ºtik gora egiten duenean, haizagailuak ez du ezer konpontzen.
- Aire girotua duen establezimendu batera sartzeak mesede egingo dizu, energia berreskuratzen lagunduko dizu eta beroari berriro aurre egiteko ondo etorriko zaizu.

6. Eguzkitik babestu:

- Berorik handiena egiten duen orduetan ez atera kalera.
- Irtzen behar baduzu, burua babestuta eta eguzkitako betaurrekoak eraman.
- Ariketa bero gutxien dagoenean egin.
- Ez geratu inoiz auto barruan leihoak itxita, gerizpean egon arren.

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 behe

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

UDALEKUE TAN

IKASTURTEA AMAITU ETA BEREHALA HASTEN DIRA HAURRAK UDALEKUE TAN. AURTEN, 3 ETA 8 URTE BITARTEKO 188 HAURREK EMAN DUTE IZENA UDALEKUE TAN. IREKIE TAN, EGUNERO 9:00ETATIK 13:00ETARA 140 HAUR IBILIKO DIRA ATXUTXIAMAIKA AISIALDI TALDEKO BEGIRALEEN ARDURAPEAN DATOZEN LAU ASTEETAN HERRI ESKOLAN. ONDO PASATZEA IZANGO DA EUREN EGITEKO BAKARRA. EUKENE GIL, LARRAITZ LOPEZ ETA ANE ODRIA BEGIRALEEKIN BERBA EGIN DUGU.

Zein da udaleku ireki eta itxien arteko ezberdintasuna?

Larraitz: Udaleku Irekietan umeak gurekin ordu batzuk pasa eta etxean lo egiten dute. Udaleku itxietan, aldiz, astebete edo bi pasatzen dituzte etxetik kanpo. Aurtan, Aubixara eta Askizura, Getaria eta Zumaia artean dagoen barnetegira joango dira.

Eukene: Askorentzat, gainera, Udaleku Itxiak gurasoen babesik gabe etxetik kanpo pasatzen duten estraineko aldia da. Bietan ondo pasatzea eta gauza berriak ikastea da helburua. Adiskidetasuna eta solidaritatea moduko baloreak ere bereganatzen dituzte, eta guzfia euskaraz, euskara bultzatzea baita beste helburuetako bat.

Zer egiten dute umeek udalekutan?

Ane: Dantzak, jolasak, eskulanak, abestu..., hitz batean; ondo pasatu! Lehen egunak

eskolako lehen egunaren antza du, negarez etortzen baitira batzuek, baina segituan ahazten zaie.

Eta zein da begiraleon zeregina?

Ane: Zaintzaile hutsak baino gehiago gara. Giro ona sortu, motibatu eta euren arteko harremanak bultzatzea da gure egitekoa. Ikastetxe ezberdinetako ikasleak nahasian ibiltzean lagun berriak egiteko eta elkar ezagutzeko aukera ezin hobea dute udalekuetan. Adin eta ikastetxe berdineko

lagunak bakarrik izate horrekin apurto behar dugu. Nahasketa aberasgarria eta mesedegarria da. Alabaina, oraingo umeak gure garaian baino gehiago nahasten direla uste dut.

Eukene: Irakasle lana eta begiralearena bereiztu behar dira, oso ezberdinak baitira. Guregana ondo pasatzera datoz eta ahalik eta errieta gutxien egin behar dira. Adibidez, ezin dugu ume bat eskulanak egitera derrigortu edo zerbait egin nahi ez duelako zigortu. Beste bide batzuk topatu behar ditugu.

Larraitz: Begiraleok ez daukagu irakasleak bezain zorrotzak izan beharrik. Daukagun plangintza ere irekiagoa da, eta, egunaren arabera, inprobisatu eta aldatzeko askatasuna daukagu.

Elgoibarren harrera ona izan al dute udaleku irekiek?

Eukene: Bai, urtetik urtera gora egiten du izena ematen duten umeen kopuruak. Gurasoek gure lana ezagutzen dute eta ahoz aho entzundakotik fidatzen direla iruditzen zait. Kexa bat edo beste egon arren, oro har, harrera ona dute udalekuek. Begiraleongan konfidantza daukate gurasoek, baina gazteak garela badakite eta konfidantza hori ez da era batekoa, beti adi daude. Ulertzen dugu eta normala da. Hemendik guran konfidantza izateko eskatuko nieke eta adinari baino gaitasunari kaso egiteko. Gainera, guraso askok lan egin behar izaten dutenez, zaintzaile bat hartzea baino merkeagoa eta hobea dela pentsatu izan dut beti; haurren artean daude, euskaraz...

“Begirale eta irakasle lana bereiztu behar dira”

EUKENE



BARREN

BEGIRALE

Larraitz: Bestalde, adin batera arte gura-soek apuntatzen dituzte umeak udalekue-tan, baina 13 urtetik aurrera beraiak au-keratzen dute joan ala ez, eta, gutxiago animatzen dira udaleku itxietara, non au-keratu gehiago ere badute-eta.

“Beti alai agertu behar gara, umeen ereduak baikara”

ANE

Begirale izateko zer ezaugarri behar dira?

Eukene: Begirale titulua beharrezkoa da, baina titulua daukaten askok ez dute begirale izateko balio. Segituan igartzen da begirale bat, dirua behar duelako ari den ala lana benetan gustuko duelako.

Ane: Motibatuta egotea eta umeekin disfrutatzea ezinbestekoak dira. Eurei zerbait ematen diezula eta ordainetan zerbait jasotzen duzula sentitu behar da: irripar bat, marrazki bat, poliki-poliki umeen adiskide bihurtzen ari zarela ja-betzea, e.a. Besterik gabe joanez gero, lan piska bat egin eta dirua kobratzea-gatik, ez zaitu berdin betetzen.

Larraitz: Garrantzitsuena hau-rrak gustuko izatea da. Irekia eta alai izateak asko la-guntzen du, gatzik gabeko pertsonak jai daukate.

Eta zer da gogorrena?

Ane: Dena ez da polita. Egu-nak daude. Egunero eta uneo-ro gustura jardun ezin daitekeen arren, aurpegi alaiena erakusten saiatu behar da, azken batean umeen ereduak baikara.

Larraitz: Talde guztia astoratzen duten umee asko baldintzatzen dute gure lana.

Eukene: Begirale guztion arteko koordina-zioa lortzea oso zaila, eta aldi berean ga-rantzitsua da. Izan ere, begirale bakoitzak gauzak egiteko modu eta era bat dauka; batzuk beste batzuk baino zorrotzagoak di-ra, esaterako. Begiraleok elkar ezagutzea inportantea da, baina udan urtean ohikoak diren baino begirale gehiago behar izaten dira eta aurten begirale berri dezente hasi direnez, koordinazioa zailtzen du honek.

Larraitz: Niri adibidez ez zait gustatzen nik tratua daukadan ume baten aurrean beste begirale batek zer eta nola egin be-har dudan esatea. Gauzak egiteko modu ezberdinak dauzkagun arren, ezin diegu hurrei gure arteko konfidantza falta hori transmiti-tu.

Udaleku itxietan lehen aldiz egun batzuk etxetik kanpo pasatzen dituzte haur batzuek.

Eukene: Batzuei gogorra egiten zaie aste bat edo bi etxetik kanpo pasatzea, eta gu-rasoak ere asko arduratzen dira, nahiz eta gero oso ondo pasatzen duten. Begirale eta umeen artean sortzen den erlazioa es-tuagoa da. Begiraleon artean ere dema-seko harremana sortzen da. Orain arte es-perientzia onak bakarrik eduki ditut, baina ez da norbaitekin gaizki eramateko leku-rik onena.

Estitxu: Udaleku itxietan 24 orduz ari za-ra begirale lanean eta norbera-rentzako leku eta momen-tuak topatu ezean, oso gogorra egin daite-ke.



Ane,
Larraitz
eta Eukene
begiraleak

CARLOS MUGERZA
SUKALDARI AFIZIONATUA

«Bildots kaldereta prestatzea egin zitzaidan zailena»



Sukaldean aritzea izugarri gustatzen zaio Carlos Mugerzari eta oso ondo moldatzen dela erakutsi du Cuatro kateko "Duelo de chefs" saioan. 6 saiotan parte hartu du, finalera iritsi eta bigarren gelditu da. Hozkailu handi eta moderno batekin itzuli da etxera eta ez dakiela non ipini kontatu digu. Esperientzia bikaina izan omen da telebistakoa, eta akaso "Todos contra el chef" saiora joateko izena emango duela esan digu.

► Nola animatu zinen "Duelo de chefs" saioan parte hartzeraz?

Programa ikusten ari ginen etxean eta ni konturatu gabe, emazteak eta alabak deitu egin zuten nire izena emateko. Eguerdi batean bazkaltzera iritsi nintzen eta telefonoak jo zuten. Cuatroko "Duelo de chefs" pogramatik deitzen zutela, nire izena zutela eta galdera batzuk egin nahi zizkidatela. Harrituta gelditu nintzen eta orduan esan zidan alabak beraien deitu zutela. Ordu erdi pasa eduki ninduten telefonoan galderak erantzuten. Azkenerako lanera joan behar nuela esan nien. Egun berean deitu zidaten programan parte hartzeko aukeratu nindutela esanez.

► Nola joan zen lehenengo saioa?

Oso urduri nengoen, pasada bat. Goizean goiz joan nintzen Madrilera grabatzera joateko, eta denbora pasa ahala, gero eta urduriago nengoen. Ikaragarria da zenbat jendek lan egiten duen telebistan, kamara atzean 60 lagun inguru zeuden. Programa hasi baino 10 minutu lehenago esan ziguten zer prestatu behar genuen. Osagaien zerrenda egin eta programa hasten denean minutu bat daukazu osagai guztiak hartzeko. Zerbait ahazten bazaizu eta gero hartu nahi baduzu, puntu bat kentzen dizute. Gero, 25 minutu daukazu jatekoa prestatzeko.

► Espero al zenuen finalera iristea?

Ez. Programan parte hartu eta bertako sukaldariak ezagutzea zen nire asmoa. Sukalde programa asko ikusten ditut telebistan. Aurkezle eta epaimahaikideak ezagutzearekin konformatzen nintzen. Azkenean, aurrera egin nuen. Guztira 6 programatan hartu dut parte. Programatik programara gauzak ikasten nituen eta lasaiago nengoen. Lehenengo eguna izan zen txarrena.

«Oso saltseroa
naiz, betidanik
gustatu zait
sukaldean
aritzea»

► Zer puntuatzen dute?

Garbitasuna, sukalderako teknikak, plateraren aurkezpena eta azkenik zapo-rea. Sukaldean ari zaren bitartean aurkezleak galderak egiten dizkizu, oso zailak, eta horrek ere puntuatzen du. Galderen-geatik galdu nuen finala.

► Zein izan da tokatu zaizun jatekorik zailena?

Bildots kaldereta. Platera den bezala prestatzea nahi zuten. Artzaiek jaten zuten mendian, osagai gutxi ditu eta guk dotoreago egiteko, osagai asko erabili genituen. Gainera, osagai bat hartzen baduzu eta ez baduzu erabiltzen, puntu bat kentzen dizute. Dena erabili behar da.

► Nola ikusi duzu zure burua telebistan?

Oso arraroa egin zait, nire ahotsa oso desberdin entzuten nuen eta alabak ere gauza bera esan zidan.

► Nondik datorkizu sukalderako zale- tasuna?

Batidanik gustatu izan zait. Gaztetan urte asko eman nituen sukaldari lanetan eta orain ere lagun arteko afariaren bat egiten badugu, nik sukaldatzen dut gehienetan. Oso saltseroa naiz. Arraina saltsan da hobekien ateratzen zaidan jana, eta jateko ere nahiago dut arraina okela baino. Alkatxofak ez zaizkit batere gustatzen.

► Nolako esperientzia izan da?

Bikaina. Lagun mordoa egin ditut eta primeran pasatu dut. "Todos contra el chef" saiorako izena ematekotan nago! Bestalde, eskerrak eman nahi ditut lanean baino eman didatelako eta animatu nauten guztiei.

AIRE LIBREKO ZINEA

“El codigo Da Vinci” filmearekin hasiko da aire libreko zinemaldia



U da iristearekin batera, Herriko Antzokitik Plaza Handira pasatzen da zinea. Gaur gauean izango da aire libreko zinearen estreinaldia. Gaueko 22:30etik aurrera, “El codigo Da Vinci” pelikula ikusteko aukera izango da Plaza Handian. Guztira 15 pelikula emango dituzte uda honetan, eta horietatik bi euskaraz izango dira; “Aupa Etxebeste” eta “Oliver Twist”. Hauekin batera, estreinatu berri diren beste filme batzuk ikusteko aukera ere egongo da, besteak beste, “Scary movie 4”, “Vecinos invasores”, “X-Men” eta “Cuando llaman a un extraño” pelikulak.

Herriko Antzokiko zenbait datu

Herriko Antzokiak oporrak hartu ditu dagoeneko, baina majo lan egin du

orain arte. 10.132 zinefilo izan dira aurten Herriko Antzokian pelikularen bat ikusten.

Guztira 70 pelikula eman dituzte, eta horien artean ikusiena euskarazko filme bat izan da; Aupa Etxebeste. 737 lagun joan ziren Etxebesteren istorioa ikustera. Bigarrena Clint Eastwood aktore eta zuzendari ezagunaren “Million dolar baby” izan da, 331 ikuslerek eta hirugarrena haurren filme bat; Doraemon 324rekin.

Bestalde, jende gutxien erakarri duen pelikula “La morada del miedo” izan da 15 lagunekin.

Azkenik esan, jendeak zinera joateko gustukuen dituen egunak igande arratsaldea, eta larunbat eta astelehen gauak direla.

Kiribilka egitasmoaren balorazio positiboa egin dute



Gainontzeko ikasleek bezala, Kiribil eta bere lagunak oporrak hartu dituzte. Irailaren 15ean itzuliko da barraskilo erraldoia Plaza Handira, eta beste lau saio eskainiko dizkigu urtea bukatu bitartean. Kiribilka egitasmoren bamean, 8 saio egin dira aurten Plaza Handian eta Elgoibarko Izarrako Nerea Larrañagak esan digunez, oso gustura geratu dira lorutako emaitzarekin: “guraso eta haur asko bildu da Kiribilka saioetan, eta oso giro polita sortu da Elgoibarko Plaza Handian Kiribil izan den ostiral arratsaldetan. Gaineratu nahi

dugu, eguraldia ere lagun izan dugula saio guztietan, ez baitugu eguraldi txarragatik saiorik atzeratu beharrik izan. Antolatzaileek oso gustura gelditu gara egindako lanarekin eta jendearen erantzunarekin”. Kiribil barraskiloarekin batera, euskal tradiziozko hainbat pertsonaia etorri dira aurtengoan Plaza Handira: Ziripot, Barbantxo, Tartalo, Zapatarri Txikia... Aurtengo Kiribilka egitasmoaren 3. edizioa izan da. Egitasmoaren helburu nagusia, 2-6 urteko haurrak dituzten Elgoibarko familetan euskal giroa piztea da.

Liburutegia kalera atera zen

Irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, “kalean irakurri” kanpaina Elgoibarrera iritsi zen joan zen ostira-lean. Egun osoan zehar irakurzaletasunarekin lotutako ekintzak izan ziren Nafarroa Plazan. Bestalde, oporretan irakurtzeko gida banatu zuten Liburutegiko arduradunek. Beraien hitzetan, “esperientzia oso polita izan da, jende mordoak gerturatu zen guregana”.



Erlatzea programa

ETB1erako biziraupen saio berria prestatzen ari dira. Uztailea eta abuztua bitartean grabatzeko asmoa dute. Partaide bila ari dira. Interesatuek erletxea@3koma.com helbidera idatzi dezakete.

XXII. NAHASTE BORRASTE

David Condek hirugarrengoz irabazi zuen Nahaste Borrasten



Atzetik aurrera eginez lortu zuen David Condek Nahaste Borrasten eskuratzen duen hirugarren garaipena. Bizikletako proban Iñigo Ortuoste izan zen bizkorrena, eta bera sartu zen lehena ikusleaz leporaino zegoen Plaza Handian, baina Martin Dominguezek ez zuen zapatilik aldatzen denborarik galdu eta lehenago egin zion kolpe 25 kiloko zakuari. Dominguez izan da Nahaste Borrasteko dominatzaile nagusia; garaipen gehien dituen parte hartzailea izateaz gain, bere eskuetan dago probaren errekorra, 2003. urtean ezarri zuen 18:35-ko denborari esker. Bere es-


perientzia baliatuz antxintxikako proba lehen postuan hasi zuen, eta beste garaipen bat eskura izan zezakeela zirudien. Ortuostek aurrea hartu zion, ordea, eta David Condek, berriz, biak ala biak hartu zituen mendean. Antxintxika moldatzen da hobekien Sigmakoa, mendi lasterketan ohikoa da, eta 23 segunduko alde atera zion Ortuosteri helmugan eta 35 segunduko tartea Dominguezi. Guztiara 28 lagunek parte hartu zuten Kimetz Elkarreak antolatzen duen proban, tartean bi emakumek. Amaia Revert izan zen lehen emakumezkoa 25:36-ko denborarekin.

Kirol Argazkien Lehiaketan parte hartzeko epea uztailearen 21ean amaitzen da

Elgoibarko Udaleko Gaztedia eta Kirol Sailek eta Ongarri elkarrekin Kirol Argazkien I. Lehiaketa sortu dute. Partehartzaileek kirol jardueraren bat erakusten duen edozein irudi aurkeztu ahal izango dute, paperezko formatuan, koloretan nahiz zuri-beltzean. Irudiak edozein teknikaren bidez tratatzeko aukera izango da eta tamaina 54 x 30 cm-takoa izan behar da. Partehartzaile bakoitzak gehienez 4 irudi aurkeztu ahal izango ditu. Olaizaga kiroldegian aurkeztu behar dira lanak, uztailearen 21a baino lehen.

Ildigoras, Gurrutxaga, Conde eta Ibarluzea nagusi Lagunak Pilota Txapelketan

Joan zen barixakuan jokatu ziren Lagunak Pilota Txapelketari zegozkion finalak Plaza Handian, Nahaste Borraste proba hasi baino piska bat lehentxoago, hain zuzen ere. Bertan, finalera iristea lortu duten txapelketako pilotariarik onenak aritu ziren eta ikusle mordoaren aurrean erakutsi zituzten beraien doainak. Benjamin B mailan, Ildigorasek jantzi zuen txapela loidiri 18 eta 5 irabazi ostean, eta benjamin A mailan, Gurrutxagak 18 eta 5 irabazi zion Zubiaurreri. Alebinetan Condek jantzi zuen txapela Amestiri 18 eta 9 irabazita. Azkenik, infantil mailan Ibarluzeak 18 eta 11 irabazi zion Lizarralderi.



Emakume elgoibartarrak Montardon eta Pic de Rateran

Joan zen asteburuan 18 emakume elgoibartar Val de Aranan (Lleida) izan ziren. Eguraldi txarra iragarrita zegoen arren, txangoa ez atzeratzea erabaki, eta zortea lagun izan zuten, igotzea pentsatuta zeuzkaten mendien gailurrera iristea lortu baitzuten. Montardo (2.833 m.) eta Pic de Ratera (2.857 m.) mendietako tontorrak ezagutu ostean pozarren itzuli zirela etxera azaldu digute.

MORKAIKO M.E.

Kantauri kostaldeko mendiak ezagutzeko aukera Morkaikorekin uztailaren 16an



Orteera berezia antolatu du oraingoan Morkaiko Mendizale Elkartek. Berezia, itsasoa eta mendia uztartuko dituelako. Uztailaren 16an abiatuko dira mendizaleak Oriñon (Kantabria) aldera, eta handik, Laredo arteko bidea burutuko dute, Sierra Candinako mendietan barrena. Mendilerro hau itsaso parean dauden haitz ikusgarriek osatzen dute eta itsas labarretatik gertu igarotzen da bidea.

Aintzina Sonabia auzotik arraina saltzera joaten ziren arraindunek erabiltzen zuten bide berbera egingo dute. Laredora iristean, eta eguraldiak laguntzen badu, txalupa bat hartu eta Santoñara joango dira. Han, itsasoaz eta hondartaz gozatzeko aukera izango dute Elgoibarrera itzuli aurretik.

Izena emateko Morkaikoren egoitzatik pasa (astelehen eta ostegunak; 19:00-20:30).



Manu Alvarezen Omenezko III. Motokros proba zapatu honetan Idotorben

Azken urteetan ohikoa den legez, Manu Alvarezen Omenezko III. Motokros proba jokatu da Idotorbe (San Pedro) bailarako jai egitarau barruan. Euskadiko motor gidaririk onenetarikoak batuko dira San Pedroko baselizaren inguruan dauden zelaietan, Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango baita zapatu honetan, uztailaren 1ean, 16:00etatik aurrera jokatu den proba.

[EMAITZAK]

ESKU PILOTA

Debaroko Txapelketa (Finalurrekoak)

Eskoriatza **22** - Lagunak (Liza./Sale.) **4 (Kad.)**

Lagunak (Ula./Loio.) **10** - Aretxabaleta **22 (Nag.)**

Lagunak Txapelketa (Finalak)

I. Idigoras **18** - I. Loidi **5 (Kad.)**

M. Gurutxaga **18** - I. Zubiaurre **4 (Benj.)**

F. Conde **18** - I. Amesti **9 (Aleb.)**

J. Ibarluzea **18** - G. Lizarralde **11 (Inf.)**

Lehen pausok urpean

Argazkian ikus daitekeen moduan, urpekaritzaren munduan murgiltzeko aukera izan zuten dozena bat gaztetxok joan zen eguean Minxetako Aire Libreko Igerilekuetan. Buceo Euskadi taldeko kideen eskutik jaso zuten ikastaroa. Zerutik jauzita beharrean igel-gizonak urpean ikusteko aukera izan genuen oraingoan.



[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisia salgai Merkatu Plaza alboan. Logela bat, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara ixia. Bizitzera sartzeko moduan.
943 74 15 96/677 389 601

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea, komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
943 03 38 44
686 62 21 92

ALOKAIRUA

▶ Pisia alokatzen dut Torrevejan, hondartzatik 200 metrora. Uztaila, abuztua eta iraila.
615 707 138
▶ Pisia hartuko nuke alokairuan.
645 499 105
▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
626 91 49 04
▶ Logela bat alokatzen da.
635 20 64 36
▶ Etxea hartuko genuke alokairuan Ibizara edo Mallorkan, uztaila eta abuztuan.
620 049420
▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. Bi logela.
943 20 30 83
▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
696023933
▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
943530162/
628299628 (Katherine)

[AUTOAK]

▶ Hyundai coupe autoa salgai. Gorria. 10 urte. Egoera oso onean, beti garajejan. 850.000pta.
678 438 202
▶ Opel Tigra autoa salgai. 1.4, 16v. Aire egokitua, beira igogailu elektrikoa, isteko sistema zentralizatua. 2.000 euro.
652 817 897
▶ Fiat Ulises autoa salgai. 97. urtekoa. Merke.
617 03 29 38
677 43 51 25 (Aitor)
▶ Honda Sky ziklomotorra salgai. 536km. 570 euro.
627432361
▶ Ford Focus 1.8 TDDI 90v. autoa salgai. 2002koa. 49.000km. Iratia, 4CD, airbag, aire girotua, atzeko beirak tindatuak, direkzio lagundua.
649099593

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje itxia alokatzen dut San Roken, Telefonica inguruan.
600 64 84 74

[BESTELAKOAK]

▶ Kiromasajerako kamilla tolesgarria erosiko nuke.
678 438 202 (Lurdes)
▶ Look K6 131 bizikleta salgai. Karbonozko kuadroa, Colnago L-40 urkila, ITM eskulekua, Mavic Helium gurpilak. 1.000 euro.
652 817 897
▶ Piragua salgai. Apurtezina. Prezio onean.
650 586144
▶ Errepideko bizikleta salgai: Trek 5.200, karbonozkoa. Dura-ace 9, 56 neurria, shimano gurpilak. 1.250 euro.
620 276 128
▶ Ospitaleko ohea salgai. Motorrarenkin.
627432361

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Gavez edo egunez. Euskalduna, esperientziaduna.
943 74 44 33
• 42 urteko emakumea lanerako prest: Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin... interna moduan.
676 190 781
• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Oso arduratsua.
659 81 32 48/943 03 36 01
• Gizonezkoa lanerako prest: Mekaniko, eraikuntza, edo beste edozein lan egiteko prest.
664 57 66 97
• Emakuea lanerako prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak...
664 57 66 97
• Pertsona bat eskaintzen da garbiketarako lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko.
626 91 49 04
• Neska gaztea eskaintzen da udan umeak edo nagusiak zaintzeko. Asteazken zehar.
659 98 08 91/943 743433
• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak, elkarteak... Arratsaldez.
639 882 004

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Interna.
610 91 33 40
• Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest.
686 23 47 86
• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak...
667 709 439
• Bi gizonezko eta emakume bat lanerako prest.
626462140
• Uztailan goizez Lehen Hezkuntza 1etik 6rako eta DBH 1 eta 2. mailako klase partikularrak ematen ditut.
943742855
• Udan klase partikularrak ematen ditut. Lehen eta Bigarren Hezkuntza.
943531054
• Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu...
699 60 91 90
• Kamarera esperientziaduna behar da asteburuetan.
943 12 12 62
• Neska arduratsua Mendaroko Ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Esperientziaduna.
60928606

ESKANTZA

• Kamarera behar da.
943 25 43 66
• Elgoibarko aroztegiak euskaraz dakienez mutila behar du.
943 74 31 16

• Erizaina behar da uztailaren 24tik irailaren 3ra arte San Lazaro Egoitzan.
943 466150 (Maidier) edo 609318192 (Manoli)
• Kamareroa behar da. Gizarte Segurantzza.
615 72 34 80
• Esperientziadun kamareroa behar da jatetxean lan egiteko.
943 12 12 62
• Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko.
943 74 14 61



• Debagoiengo enpresak **mantenitu elektriko eta mekanikorako langilea** behar du.
Eref. 162006008577
• Gipuzkoako enpresak **harrerarako langilea** behar du.
Eref. 162006008676
• Donostiako enpresak **sistema informatikako teknikaria** behar du.
Eref. 162006008666
• Azpeitiko enpresak **obra taldeko burua** behar du.
Eref. 162006008585

• Bergarako enpresak **soldadorea** behar du.
Eref. 162006008293
• Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du.
Eref. 162006008404
• Zarazuko enpresak **okindegirako langilea** behar du.
Eref. 162006008434
• Bergarako enpresak **zaintzailea** behar du.
Eref. 162006007647
• Azpeitiko enpresak **manufaktura industriako peoia** behar du.
Eref. 162006008313
• Bergarako enpresak **bame dekoratzaile eta diseinatzailea** behar du.
Eref. 162006008436
• Gipuzkoako enpresak **inkestatzaileak** behar ditu.
Eref. 162006008304
• Gipuzkoako enpresak **gizarte hezitzailea** behar du.
Eref. 162006008394

Hautagai moduan sartzera eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• Karitasek kotxe kapota, kotxetilla, sehaska eta josteko makina behar ditu.
943 74 15 09

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Iker** hilaren 26an 3 urte egin zenituelako. Naiara eta gurasoen partez muxu handi bat.



▶ **Luken** zure 2. urtebetetzean. Exekoan eta bereziki, Juneren partez. Ondo-ondo pasa!



▶ Zorionak **Oihana!** Ondo pasa eguna eta muxu asko ikastolako lagunxoan partez.



▶ Zorionak **Elene** hilaren 28an 3 urte egin zenituelako. Exekoan partez.



▶ Zorionak **Nora!** Muxu handi bat etxekoan, ikastolako lagun eta batez ere, izeba Izaskunen partez.



▶ Zorionak **Laura** 9 urte handi bete dituzulako. Guraso eta bereziki, Jone ahizparen partez.



▶ Zorionak **Ana** hilaren 3an 12 urte egingo dituzulako. Familiakoan, Rakel eta Nerearen partez.



▶ Zenbat egingo dituzu? Baaaat. Zorionak **Ane** gurasoen eta ikastolako lagunxoan partez.



▶ Zorionak **Amanda** zure 3. urtebetetzean. Muxu asko gurasoen partez.



▶ Zorionak **Veronica** uztailearen 4an 10 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Femandoren partez.



▶ Zorionak **Maitane** atzo urteak egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, Ion eta Janirenen partez.



▶ Zorionak **Aitana** atzo 5 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Enara** zure 7. urtebetetzean. Senideen eta batez ere, Iratiren partez.



▶ Zorionak **Olaia** hilaren 2an 6 urte beteko dituzulako. Julene eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Nerea** hilaren 7an 9 urte egingo dituzulako. Familiakoan, Rakel eta Anaren partez.



▶ Uztailearen 1ean 4 urte! Zorionak **bikote** eta egun zoriontsu bat opa dizuegu etxekook, baina bereziki, aste honetan falta zaizuen ahizpa Uxueren partez.



▶ Iritsi zaizue 10.ena! Zorionak bihotz bihotzez eta urte askotarako! Ah, eta ez aldatu parejita! Muxutuak!

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean haur eta gaztetxoei zuzendutako proiektuak koordinatzeko

EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

Curriculumak jasotzeko azken eguna: **uztailak 12**

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol) • E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

Zerbitzuak

[OKINDEGIA]



2 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

- 30
1
2
3
4
5
6
7
- GUARDIA 24 ORDUZ**
Etxeberria (Errosario)
Ibañez
(* Goizez Etxeberria Errosario)
Ibañez
Bidasolo
Zabaleta
Fernandez
Yudego
Zabaleta

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandek eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandek eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuk eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SAN PEDRO BAILARAKO JAIK 2006

Uztailak 1 (Zapatua)
16:00 Manu Alvarezen omenezko III. Motokros proba
21:00 Bertso afaria.
Sebastian Lizaso eta Angel M. Peñagarikanorekin
Ondoren, Gaupasa Gardoki taldearekin eta eguna amaitzean txokolatada

Uztailak 2 (Domekia)
10:30 Meza
12:00 Goenatxo aita eta semea harrijasotzen
14:00 Auzotarren bazkaria
17:30 Idi-Demak "San Pedro Saria"
Parte hartzaileak: Eibarko Agarre-Azpikua; Aizamazabalgo Etxabe eta Usurbilgo Bizkarre

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbina-**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

LANBROA



Pintxoetan **jukeia zabala**

P. MUGURUZA, 5 Tel: 943 74 16 76

[30 BARIKAKUA]

19:00 BH INSTITUTUKO BATXILER ETA ZIKLOETAKO BIGARREN MAILAKO IKASLEEN DIPLOMA BANAKETA

Gonbidatuak: Iñigo Lazkano eta
Amets Txurruka txirindulariak eta
Uxue Alberdi kazetaria
Herriko Antzokian

22:00 BIDEO-FORUM-A

Filmea: "Cold Mountain"
Hizlaria: Eskame Larrinaga
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

[4 MARTITZENA]

10:00 ESKUBALOI TEKNIFIKAZIO IKASTAROA

1992-1993an eta 1994-1995ean
jaino eta eskubaloian jokatu nahi
duten mutilei zuzendua
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Sanlo E.K.T

11:30 ESKUBALOI TEKNIFIKAZIO IKASTAROA

1994-1995ean jaino eta
eskubaloian jokatu nahi duten
neskei zuzendua
Olaizaga Kiroldegian

[6 EGUENA]

21:00 AHOTSAK EKIMENAREN ALDEKO EKITALDIA

Parte hartzaileak: Gemma
Zabaleta (PSE-ko legebiltzarkidea),
Jone Goirizelaia (Batasunakoa),
Gemma Gonzalez de Txabbarri
(EAJ-ko legebiltzarkidea) eta
Nekane Alzelai (EA-ko
legebiltzarkidea).
Herriko Antzokian.

[7 BARIKAKUA]

08:00 SAN FERMINETAKO ENTZIERROAK ZUZENEAN

Kultur Etxean
Ekainaren 14ra arte

10:30 SAN FERMIN TXIKI

San Bartolome eta Errosario
kaleetan zehar
Ondoren, poniak, zezentxoak eta
txorizo jana Plaza Handian
Antolatzailea: Atxutxiamai
Aisialdi Taldea

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR PLAZA HANDIAN

«ElCodigo Da Vinci»
30, barixakua: 22:30
«Las Cronicas de Namia»
1, zapatua: 22:30
«Bajo Cero»
7 barixakua: 22:30

EIBAR, UNZAGA

«La profecia»
30, barixakua: 19:30-22:15
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15
2, domekia: 17:00-19:30-22:15
3, astelehena: 19:30-22:15
4, martitza: 19:30-22:15
5, eguaztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Cuando llama un extraño»
30, barixakua: 19:30
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15
2, domekia: 17:00-19:30-22:15
3, astelehena: 19:30-22:15
4, martitza: 19:30-22:15
5, eguaztana: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

ALBOKUAK INMOBILIARIA



ERROSARIO

- Azken etxebizitzak.
- Abuzturako bizitzera sartzeko moduan.
- 1. urteko aseguruia dahanik.
- 168.300 eurotik hasita.



Errosario, 12 • E-posta: albokuak@euskalnet.net
Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Atzera hegira



1974 urteko erretratu zahar hau herri-
tar batek laga di-
gu.

Urte hartako Trinitate jaietako tanborradan parte hartu zuten mutil batzuk ageri dira argazkian. Ikusten denez, mutil hauek zaborbiltzailez jantzita atera ziren tanborradan. Aspaldi hartan badirudi trinitateetako tanborrada mozorrotuta ateratzen zirela parte hartzaileak.

Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren mutil hauek.

Zutik ezkerretik eskumara: Juan Ignacio Ros, Jose Ignacio Saez, Jesus Ruiz de Gauna.

Makurtuta: Juan Pedro Artetxe eta Juan Migel Aizpitarte.

SAN PEDRO
J A T E T X E A

jaixak ondo pasau!
Aurrez enkargatuz gero hobe!

SAN PEDRO AUZA · Tel. 943 740 010 · ELGOIBAR



uda'06

aire libreko zinea

Elgoibar / 22:30 Foruen plaza



Elgoibarko Udala
Kultura Zain



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Blena
Neurrira egindako lana
Emuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso
Lelhoak
Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze
Lelhoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

Antonio Markez
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi
Olaso Poligonoa,
15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta instalazioak
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Proiektu eta erreformak

Bigara Erreformak
San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96

Estudios Arrillaga
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019

Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

Ipintza
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.
Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak
Indusketa eta Indusketa txikak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com